

*Tokiko Gobernu Batzordeak 2026ko otsailaren 12an, osteguna, hartutako erabakiaren laburpena. Akordio horren bidez, Kultura Departamenduak ,norgehiagoka prozedura bidez, kudeatutako programen kontura dirulaguntzak emateko 2026ko deialdia onartu zen.*

## **OÑATIKO UDALA**

### **Kultura Sailak - norgehiagoka prozedura bidez - kudeatutako programen kontura dirulaguntzak emateko, 2026ko deialdia.**

Kultura Batzordeak proposatuta, Tokiko Gobernu Batzordeak, 2026ko otsailak 12an, osteguna, egindako batzordean honako hau erabaki zuen:

**.-Lehenengoa:** Onartzea: aipatutako dirulaguntzen 2026ko deialdia, guztira 99.330 euroko gastua baimentzea dirulaguntza hauek finantzatzeko udal aurrekontuen "1.0800.480.334.00.01.2026 (355) " diru ataletik eta bere lotespen mailatik ordainduko dena, ondorengo eran :

A lerroa: Kultur programak eta proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak (guztira lerro honetarako 80.850 euroko gastua baimentzen da).

B lerroa: kultur sormen lanak finantzatzeko dirulaguntzak (guztira lerro honetarako 18.480 euroko gastua baimentzen da).

**.- Bigarrena:** Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik aurrera kontatzen hasita, hilabeteko epea izango dute interesdunek eskaerak egiteko.

Azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna izango balitz, eskaerak aurkezteko epea hurrengo egun baliiodunera arte luzatuko da.

**.-Hirugarrena:** Eskabideak aurkezteko bete beharreko imprimakiak interesdunen eskura Oñatiko Udaleko web orrian, dirulaguntza atalean egongo dira.  
(<https://www.oñati.eus/eu>).

**.-Laugarrena:** Diru laguntzak zuritzeko azken egun izango da:

A lerroa: 2026ko azaroak 20, ostirala.

B lerroa: 2026ko azaroak 20, ostirala.

**.-Bosgarrena:** Kultura Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak, 2024ko martxoaren 13an,asteazkena, argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ( 52.zenbakia).

Erabaki hau behin betiko da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Juntari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen

berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsorik aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Oñatin, 2026ko otsailaren 12a.-Izaro Elorza Arregui, Alkatea.